

Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA ♦



DANI BLANCO

Ezkerreko umore matxista delakoa

EGIA DA, askotan feminista garenok “gureak diren” gauzak irakurri, ikusi eta kontsumitzeko ohitura ton-toa dugu. Diot hau, nire kasuan esaterako, askoz ere azkarrago bota ahal izango dizudalako emakume idazle zerrenda bat —gehiegi trabatu gabe— gizonetakoena baino.

Tarteka ordea, kontzientzia txarrak jota bezala, “unibertsalak” diren horiek irakurri, entzun eta ikusteko ariketa egin ohi izaten dut. Dela musikan, zinean, literaturan, artikuluetan.

Antzeko zerbait pasa zitzaidan, hemen aipatuko ez dudan aldizkari batekin. Izan ere, Ikatza Liburugunean, hilero liburu, aldizkari edo filmetan dirutxo bat inbertitu ohi dugu. Hilabete batean proposamena “ezkerreko” umore oso kritikoa zuen aldizkari alternatibo batean inbertitzea izan zen.

Ondo iruditu zitzaigun denoi, eta hala egin genuen harpidetza. Onartu behar dut, saiatu banintzen ere, ez nuela lortu barre gehiegirik egitea “satira” haiekin —eta aurreratzen dizuet, oso barre errazekoa naizela—.

Hala, hilero pilatzen joan da ditzosozko aldizkaria, egia esan, gure artean jarraitzaile gehiegi lortu gabe.

Hara non, aurreko astean ikusten dudana, irakurle batek aldizkariari iradokizun bat egin ziola, karta bat

bidaliz. Bertan zioenez, deserosoa egiten zitzaioren erabiltzen zuten (batetik) lengoaia sexista eta (bestetik, ez ditzagun nahastu) maskulino generikoan idaztea. Hala eskatu zien, beste eragile sozial askok egiten duten bezala, emakumea kontuan hartzea dauden mila aukeren bidez.

*Euskaldunak
zorteko gara,
genero markak,
hutsean, ez
dugulako asko,
nahiz hauek
birsortzeko joera
gainetik kendu
ezinean ibili ohi
garen*

Erantzunak azken egunetan sarean eztanda egin du. “Ezkerreko umorea” badakizue, oso sofistikaturia izan ohi da. Baina kasu honetan, umorea ezkereskuin ordeztu, zuzenean matxista denez, erantzuna, laburbilduz, honako hau izan zen: “Gure zuzendariak dio zakila jan iezaiozula”.

Hau azken finean gustatzen ez zaidan aldizkari pseudo-progre-matxista batean gertatu da. Eta pentsatu dut, euskaldunak zorteko gara, genero markak, hutsean, ez dugulako asko, nahiz hauek birsortzeko joera gainetik kendu ezinean ibili ohi garen.

Baina une batez pentsatu dut, hainbati halako iradokizuna eginez gero, zakila zupatzeari gonbita egingo ez ote zuen. Gero gogoratu dut, euskaldunak progreagoak gara, zibilizatuagoak eta ilustratuagoak, finean. Gurean, akaso, “popatik hartzera” bidaliko genukeela irakurle pelma; asko jota. Eta lasaitu txorota hartu dut. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Mesanotxean

MESANOTXEKO tiraderan gordetzen ditu galderak. Publikoki adierazten ez dituen hainbat inkognita paper batean apuntatu eta tiraderan sartzen ditu noizetik noizera. Gau batzuetan paper berriak sartzen ditu eta beste gau batzuetan, aldiz, atera; ikusten baldin badu dagoeneko idatzitakoari erantzuna emateko modua aurkitu duela, zakarrontzira botatzen du; akabo erronka, nolabait. Galderak erantzun ahala desagertzen dira paperak mesanotxetik.

Bada, ordea, harri kozkorrik paperen artean; frankotan atera eta irakurri izan arren, erantzunik gabeko galderaren bate-

kin topo egitea suertatzen zaiolarik. Asmatutako metodo bitxi hori gero eta erruleta errusiarrago bihurtzen ari da. Horrek ematen dio, nonbait, jokatzeko txirrinta berezia.

Zoriak aurkako aldea agertzen duenetan ez du apenas lorik egiten, eta nahasia ari-tzen da ohiko eginbeharretan boladatxo batez. Halatsu dabil lehengo astetik hona, ezin zentratuz bezala. Izan ere, berriaz behaztopa eta muturkatu da aspaldiko tema alu-pitoarekin: “Noiz utziko diot mesanotxean arakatzeari?”. ■

